

## VI EUSKAL ASTEA

*Arrankudiaga.*—*Santa Ana.*—Egun onetan egiten da mugarren ikerketa.

Markina.—Murua'ko San Martin.—Ondarroa'ko arrantzaleak penitentzian joaten ekien ermita onetara.

*Durango.*—*San Bixente.* Emen egon zan, eleiza eta etxe artean, Mikeldi. Gero ermitaren atadian ipini eben, eleiz-portalian.

*Elorrio.*—*Oitura* askoko dira emengo ermitak. Bat, Argiñeta, istori luzekoa da. 20 illobi eta 5 il-ezagarri dagoz inguruan.

*Portugalete.*—*Zazpi* ermita egon ziran. Gaur bakarra dago.

Santurtzi.—Ermita zar guztiak galdu ziran. Bederatzi.

Sestao.—Bardin. Iru galdu ziran.

*Trapagaran.*—*Ermita* guztiak galdu ziran.

*Zaldibar.*—*San Lorentzo.*—Errekan sartzen eben zaindaria, euria eskatzeko premiñetan.

*Elorrio.*—*San Esteban.*—Donilatza jaso ondoren, oitura zan baserrietatik zear errondan ibiltea eta gero txokolatada bat euki.

Ondarroa.—Antigua.--Gure denporako zarrak sinistu egiten eben Antiguako Ama, ekaitz egunetako gauetan, itxasondoan ibiltzen zala, eta iñoiz busti-busti eginda be iruditu jakoen eta negarrez errezuka jardun, euren gizonak itxasoan gau txarra igaroko ebela irudituta.

Orrelako siniste, oitura, gertaera eta ekandu asko esan leikez. Armita guztiak dauke eurretan gogoratzen daben zerbaite.

Gure ermitetan, gure zarren fedea gogoratu bear da gain gañez. Egin ziran ermita ederrak. Beste asko, Yurreta'ko Goyuria'ko Andra Maria en kantuetan gogoratzen dan lez:

Zuk aita arotza al dozu?  
Auxe esan egiozu.  
Ermitatxo bat egizu,  
zazpi lata ta zortzi tellagaz  
ermitatxo bat egizu.

Eta ermitak or dagoz. Gure erriaren istori zar eta zegaitik ez barri be?

AUGUSTIN ZUBIKARAI

### Baselizak eta euretako kantu batzuk

*Ama Birgiña Gaidotzakua.*—*Berriatua*

Ama Birgiña Gardotzako,  
gure ume au ez da ezetako,

ez loditzeko,  
ez argitzeko.

Iru zapatutan etorriko naz eta  
mesedetxu bat beretzako.

Ama Birgiña Gardotzakoari bezperak kantatu ezke-  
ro, jakea lepora.

*San Lorentzo.*—*Asterrika. Lurrez Berriatu, eleizaz Ondarroa*

San Lorentzo'k esku baten sua,  
Asterrikan otz ez dana berua.  
San Lorentzo'k esku baten su bizia  
eta bestean prest illintia.

Asterrikako tontorrean  
Aita Lorentzo deunari  
Asoalditikan Asterrikan  
dogu Jaun eta Zaindari:  
guri zerutar begiak  
begira begira dauzka  
izan bedi betirako  
gure esperantza eta poza.

*San Antolin.*—*Berriatua*

San Antolin, txistu ta tanbolin,  
gona barrenak aidean egun guztin.

*San Gregorio.*—*Berriatua*

San Gregorio, belarriko miñak kentzeko  
eroan botilla bete orio.

*Arteaga.*—*Kandelario*

Kandelario lerijo  
atxari ura darijo,  
Makatza ala madari  
nun da Peru Motxori?

*Berriatua.*—*Madalena*

Madalen Arantziko  
odol garbiak garbitzeko.

*Ondarroa. San Juan*

San Juan'ek diño bere egunian  
zelebratzeko fiesta,  
kastigatua izango dala  
lana egiten dauana.

San Juan, San Juan,  
San Juan Bautista,  
zelebratu daigun  
gaur bere fiesta.

*Ibarrangelu.*—*Atxerre ko San Pedro*